

Urnietako Akelarrea, San Juan bezperan, Txanbolin txistularien eta Sorginen eskutik / 16


Gazta Rolling ekimen deigarria, Urnietako Poxta Zahar gazte kuadrillen eskutik / 5

"Gidabaimena Euskaraz" egitasmoa sustatzen ari dira Beterrri-Buruntzako sei udalak / 12-13



Sanjuanak, bero-bero

Ekainaren 20an hasi eta 25era bitarte, jaietan murgilduko da Andoain / 6-11



POSTONTZIA

TOLOSALDEKO ESIKO EAJ-PNVKO HERRI ORDEZKARIAK

Tolosako ospitale publiko berriari bai

Azken urteotan, Tolosalderako Ospitale Publiko berri baten aldarrikapenak toki garrantzitsua hartu du gure eskualdeko agendan.

Eskaera hau herritarren artean oso partekatua da, eta gainera, Eusko Jaurlaritzaren erantzun positiboa jaso du. Urkullu lehendakariak, bere garaian, eta egungo Pradales lehendakariak publikoki adierazi dute Tolosarako eta Tolosalderako proiektu estrategiko horrekin duten konpromisoa.

Alberto Martínez Osasun sailburua hainbat aldiz izan da bertan, eta aurrerapenak nabarmenak izan dira. Osakidetza dagoeneko onartu ditu ospitalearen plan funtzionala eta eraikuntza-proiektuaren idazketa, eta, gainera, hori gauzatzeko beharrezko finantzaketa bermatu du.

Ospitalearen eraikuntzak eskualdearen helburu historiko bati erantzuten dio: Osakidetzan erabat integratutako osasun-zentro bat izatea, euskal osasun-sistema publikoak zuzenean kudeatua eta Gipuzkoako asistentzia-sare aurreratuenarekin eta Donostiako Unibertsitate Ospitalearekin konektatua.

Etorkizuneko ospitaleak zerbitzu-zorro zabala eskainiko du, osasun-arreta integrala, hurbila eta kalitatezkoa bermatzeko. 50 kanpo-konsulta, kirurgia txikiko hiru gela eta espezialitate medikoak (kardiologia, neurologia, ginekologia, traumatologia edo barne-medikuntza, besteak beste) izango ditu. Halaber, erradiodiagnostikoko zerbitzu moderno bat izango du, erresonantzia magnetikoa, TAC, ekografia eta erradiologia konbentzionala izango dituena.

Instalazioek honako hauek ere izango dituzte: lau ebakuntza-gela, endoskopia-unitatea, eguneko ospitale medikoa, laborategia,



Osakidetzako gela bat. OSAKIDETZA

farmazia, errehabilitazioa, etxeko ospitalizazioa eta larrialdietako basea. Ospitaleratzeari dagokionez, 90 ohe izango ditu, hainbat laguntza-unitatetan banatuta. Gainera, larrialdietako zerbitzu bat izango du, triajerako, kontsultetarako, behaketarako eta suspertzeko gunearekin.

Herritarren gehiengo zabal batek pozik hartu du proiektu hau, oso errotuta dagoen aldarrikapen bati erantzuten diolako. Interes orokorraren arabera proiektua aurrera egiten ari zela zirudienean, EH Bildu ezusteko jarrera aldaketa batekin azaltzen da. Orain zalantzan jartzen dute orain arte defendatzen zutena. Aurrerapentzat zeukatena, gaur egun badirudi ez zaiela balio.

Izan ere, eskualdeko alkate batzuk etorkizuneko Tolosako Ospitale Publikoa "zentro soziosanitario" soil gisa aipatzen hasiak dira, tartean Andoaingoa. Erabilitako hitzek beti daukate atzean intentzio bat. Proiektuaren eraikuntza eta finantzaketa publikoa bermatuta daudenean, berriz ere konfrontazioaren alde egiten dute. Badirudi, helburua, bideratuta zegoen eztabaida bat irekita mantentzea dela, eta osasuna bezalako gai garrantzitsu bat higadura politiko eta elektoraleko tresna bihurtzea.

Paradoxikoa da Andoain eta Tolosaldeko eskaera historiko bat konpontzetik zenbat eta gertuago egon, orduan eta gehiago ahalegintzea batzuek gatazka elikatzen. Konponbidea zenbat eta hurbilago egon, orduan eta erosoago sentitzen dira sektore jakin batzuk etengabeko polemikan.

EH Bilduk etorkizuneko ospitalearen aurkako higadura kanpaina bati ekin dio, dokumentazio ofizialean agertzen ez diren terminoetara joz eta anbulatorioaren etorkizunari buruzko funtsik gabeko zalantzak sortuz. Helburua argia dirudi: herritarren artean ziurgabetasuna eta mesfidantza sortzea. Kezkagarriena da estrategia horrek kalte egin diezaiekeela Andoaini eta eskualde osoari.

Aukera historiko bat daukagu esku artean Tolosaldeari ospitale publiko moderno bat emateko, Osakidetzan erabat integratua eta gure herritarren egungo eta etorkizuneko osasun-beharrei erantzuteko prestatua. Gure konpromisoa irmoa da. Proiektu hau blokeatzen edo atzeratzen saiatzen direnen aurrean, lanean jarraituko dugu Osakidetzaren eskutik, Tolosako Ospitale Publiko berria lehenbailehen errealitate izan dadin.

POSTONTZIA

IÑAKI PEREZ DE EULATE, AITOR AIZPURUA, XABIER LOPEZ ANDOAIN

Zintzotasuna nagusi

Dagoeneko badugu foto-muntaia ederren faszikulu berri bat esku artean. Eiffelek esaten zuen "paperak dena jasaten du". Oraingoan beldurrezko telesail paralizatzaile gisa datorkigu, gertaera burutua dela eta ez dagoela zer eginik sinestarazteko asmoz. Ahaztea nahi dute andoaindarrek euren interesak ondoen ordezkatzeko zutela. Dirudienek, ez zaie interesatzen andoaindarren sentipena.

Kasu honetan ere, lausengari gezurri asko dago. Norbaitek sinestarazi zigun, lore-jokoekin eta dekretuz, herriko biztanle guztien lurra Aldundiari lagatzeak, Ikastolaren aurrealdeko zarata babeslea 4 metro atzeratzeko asmoz, ez zuela ikastetxearen onura beste helbururik. Gogoan duzue? Bada, oraingo foto-muntaiek egia adierazten digute. Non geratzen da aurreko agintaldiko andoaindarren ordezkari nagusiaren zintzotasuna? Bere oraingo irabazian.

Sorabilla Azpikolatik Balastrainera zela eta Sorabilla osoaren interesak defendatuko zituztela esan zutenak ere izan ziren. Une hartan, adierazpen horrek barre-algara galanta eragin zuen. Ziur gaude, eta hala nahi duzue izatea, eragotziko dela Bordaberri industrialdeko eta Allurralde baserriko lurjabeen desjabetze masiboa, eragotziko dela Itsasmendi enpresaren instalazioak desagertzea eta abar... Izan ere, horiek ere Sorabillakoak dira.

N1 errepidearen egungo trazaduraren gehiegizko dimentsionamendua kaltegarria da andoaindarren egungo eta etorkizuneko interesentzat.

Andoaindarren ordezkariak omen ziren batzuek ez dute zintzotasunez jokatu, irabazi pertsonalen mesedetan baizik.

Beharbada, Marco Aureliok esandakoa gogoratu beharko litzaieke horiei: "erlauntzarentzat baliagarria ez dena ez da erlearentzat baliagarria", zeren erlauntzak jada aukeratu baitzuen bere onurarako baliagarria dena dela.

Bukatzeo, une hau aprobetxatu nahi dugu alkatearengana jo eta N1 eta A15 lotzeko bide-azpiegituraren orainerako eta etorkizunerako hiru gauza eskatzeko: lidergoa, anbizioa eta determinazioa.

Lidergoa, herritarren gehiengoak kontsultan erabakitakoa azken ondorioetaraino defendatzeko, eta Andoainen inoiz ezagutu den atxikimendurik handiena, hala nola, helburu ukigarrien dekalogoaren 3.500 herrikideen babes. Jar dadila N1 errepidea igarotzen den herrietako alkate guztien buru bide-proiektu seguru bat eskatzeko.

Anbizioa, Bordaberri industrialdearen hegoaldean HAPOrerkin bateragarria den proiektu bat bukatzeko, ingurumena eta pertsonen eta haien ondasunen interesak errespetatuko dituena.

Determinazioa: kemenik ez galtzeko eta erlauntzaren mesedetan zintzotasunez jokatzeko. Bada, erlauntzak bere ongizatea jarria du bere jardunean. Alkate jauna, andoaindarren interes komunaren defentsan bakarrik gelditzen zara zu. Beste batzuek beren interes pertsonalen mesedetan dihardute, erakutsi diezaiegun azken horiei erlauntza gabe erlea desagertu egiten dela. Bizitza badoa eta errealitate berriak azaleratuko dira. Egia bihur dezagun Andoaingo amets hori eta defenda ditzagun andoaindarrak eta euren interesak.

Ez etsitzeko unea da. Arrazoiaren indarraren unea da. Ez da indarrez inposatu nahi diguten foto-muntaien momentua.

TXOKOTIK ZABALERA

UNAI GAZTELUMENDI ARANDIA MARRAZKILARIA

UDA
IRISTEKO
PRESA



Alberdi Martirena, gogoan

Juankar Alberdi Martirena urnietarra gogoan hartu zuten San Juan plazan, astelehenean, bere heriotzaren 28. urteurrena bete zen egunean. Salbuespeneko espetze politikaren eraginez hil zela salatu zuten Urnietako ekitaldian

Xabier Lasa URNIETA

Lore-eskaintza egin zuten bertaraturatutakoek, eta hizlari aritu ziren Nagore Brel eta Pilar Garaialde. Eider Manterolak dantzatu zuen agurra eta Irati Zinkunegirekin batera jo zuen txalaparta. Bertotan Unai Gaztelumendi aritu zen eta, kantuan, Kantazaun taldeaz gain, hirukote bat Xabier Ubillosek, Jon Ijurkok eta Iñaki Revueltak osturikoa.

Espetze-politika jomugan

Nagore Brelek, Euskal Herriko gatazka politikoaren testuinguruan, milaka giza eskubideren urraketak gertatu direla adierazi zuen. Horiei guztiei egia, aitortza, justizia eta erreparazioa zori zaiela aldarrikatu zuen. Eus-

kal presoiei salbuespeneko espetze sistemak ezarri zaiela eta, datuak eman zituen: “azken sei hamarkadetan, 38 euskal preso politikok eta 16 senide eta lagunek galdu dute bizitza. Haien artean, Juankar Alberdi Martirena urnietarra”. Ondorioz, Brelen hitzetan, aldarrikapena: “beharrezkoa da salbuespeneko espetze politikak eragin dituen urraketan egia itzaletik argira ateratzea. Bizikidetzatza demokratikoa eraikitze beharrezkoa da pertsona guztien eskubide guztiak errespetatzea”.

Egiari Zor Fundazioaren ize-nean mintzatu zen Pilar Garaialde eta hark ere “salbuespeneko” espetze politika izan zuen jomugan: “Oinarrizko giza eskubideak

errespetatu ez dituen sistema izan da. Osasunerako eskubidea eta torturarik edo tratu anker eta umiliagarririk ez jasateko eskubidea urratu dituen salbuespen sistema da”.

Kartzelan gertatutako 36 heriotzak ekidin zitezkeela adierazi zuen San Juan plazan egindako adierazpenean: “Heriotza horiek badute zerbait komunean: guztietan salbuespeneko neurri politikoen aplikazioa erabakigarria izan da. Behar bezalako osasun arreta ukatzea, gaixotasun sendaezinen aurkako protokoloak modu arbitrarioan aplikatzea, kartzela barruko bizi baldintza gogorak, isolamendu luzeak, lehen graduko eta FIES sailkapen sistematikoak, komunikazio guz-



Omenaldi ekitaldia astelehenean egin zuten, San Juan plazan. AIURRI

tien interbentzio iraunkorra, urruntze eta dispertsio politikak ere”. Salbuespeneko espetze-politika hori “governuek hartutako erabakien emaitza” dela, “arduradun zuzenak” dituela, eta horiek “erantzukizuna bere gain hartu behar” dutela gaineratu zuen: “Aitortu beharko dute

euskal presoiei espetze politika anker hau ezarri zitzaizela arrazoi politikoak direla medio, makurtze politikorik ematen ez zen bitartean onartu egiten zutela preso horien osasun fisiko edo psikologikoaren higadura; haien artean Juankar Alberdi Martirenarena ere”.

Folklore jaialdia

Extremadurako, Andaluziako eta Euskal Herriko folkloreak erakusgarri bilakatu zen Bastero, aurreko asteburuan. Donostiako Extremadura Etxeak, Andoaingo Nuevos Aires taldeak (argazkian), eta Lasarte-Oriako Erketz taldeak parte hartu zuten. Verdasco Hogar Extremeño lehendakariak esker-oneko lore-sorta bana eman zien hiru taldeei.



"Hasiberriei dago, bereziki, zuzenduta"

MIKEL AGIRREGOMEZKORTA FORMATU TXIKIKO ARTE ESZENIKOEN LEHIAKETA Antzerkia eta arte eszeniko gehiagori zabalik dagoen lehiaketa antolatu dute Urnietan. Hein batean, antzerkizaletasuna sustatzea da helburua

Lide Ruiz Telleria URNIETA

Zertan datza, zehazki, Formatu Txikiko Arte Eszenikoen lehiaketa?

Duela urte asko Adunan, antzeko lehiaketak antolatzen zituzten, eta horrez gain, ikastaroak eta zirkua martxan jarri zituzten. Antzeko lehiaketak antolatzen hasi ziren, eta urte batzuk igaro zirenean, lekukoa Urretxuko antzerki talde batek hartu zituen. Haiek "Microteatros" izena jarri zieten. Garrantzitsua iruditu zitzaidan lekukoa hartzea, eta Urnietara ekartzea. Gure kasuan, "Microteatros" izena aldatu eta Formatu Txikiko Arte Eszenikoen Lehiaketa deitu diogu, horren barruan beste diziplina batzuk sartzen direlako; zirkua, dantza, performance, antzerki-dantza... Ahalik eta jende gehienak parte hartzeko zabaldu dugu. Iraupenari dagokionez, piezek gehienez 15 minutu iraun dezakete, eta gainerako xehetasunak deialdiaren estekan azaltzen dira. Urnietako Udalari ere eskerrak eman nahi nizkioke, eskainitako laguntzagatik.

Nire kasuan, herrian nik eraman dut antzerki tailerra. Duela bi urte Udalak bertan behera uztea erabaki zuen parte hartzea baxua baitzen. Bestalde, badut beste elkarte bat, Zurriburri Antzerki eta Kultur Elkarte eta horren bitartez klaseak eman jarraitzen dut. Aurreko Antzerki tailerrean aritutako ikasle ohi batzuk nirekin jarraitu dute, eta iaz, adibidez, ikasturte amaierako antzeppen bat egin genuen, eta aurten ere egin behar dugu. Horrez gain, uztailearen 11n ere, emanaldi bat egingo dugu, "Terror y miseria en el primer franquismo" izenekoa eta Jose Sanchis Sinisterra idatzitakoa.

Nondik nora bururatu zitzaizuen ideia hori?

Aurretik aipatu dudan moduan, ideia Adunako eta Urretxuko esperientzien harira bururatu

zitzaidan. Era berean, harremantetan egon naiz Adunako antzerki tailerrean aritutako antolatzaile urnietar batekin. Nire kasuan, Adunako lehiaketan antzeple, epaimahaikide eta aurkezle gisa parte hartu nuen. Urretxun ere Antzerki Tailerrekoak aurkeztu ginen. Sailkapenari dagokionez, bi talde sailkatzen dira: bat epaimahaiaren botoen bidez, eta bestea publikoaren botoen bidez.

Nori dago zuzenduta?

Hasiberriei dago, bereziki, zuzenduta. Urnietan antzerki emanaldiak antolatzen direnean, antzerki konpainiaren arabera Sarobe bete egiten da, eta beste batzuetan, ez hainbeste. Ezagunak direnean, jende asko joaten da. Testuinguru horretan, guk antzerkizaletasuna bultzada eman nahi diogu, eta aukera luzatuko diegu hain ezagunak ez diren taldeei.

Nola parte hartu daiteke antolatu duzun lehiaketan?

Izena emateko fitxa bat sortu dugu: parte hartu nahi duen taldeak fitxa hori bete beharko du, eta guri bidali. Horren bidez, parte hartu dezakete. Kultur etxeei ere bidali diegu esteka, ahalik eta gehien zabaltzeko.

Nolakoa izango da lehiaketaren formatua?

Ereduari dagokionez, aurkezle bakarra edo gehienez bi izaten dira, eta haiek dira taldeak aurkezteko arduradunak. Horrez gain, giro ona sortzeko, animatzaile gisa ere aritzen dira. Iraupenari dagokionez, lau aste iraungo ditu, lehenengo hiruetan sailkapenak eta laugarrenean finala. Sailkapenak kultur etxean izango dira, eta finala Saroben. Teorikoki, sailkapenean sei taldek parte hartuko lukete, eta sei talde horietatik bi sailkatuko lirake. Jende gehiagok izena ematen badu, beste aukeraketa bat egingo dugu.

Banaka aurkezteko lehiaketa dirudi, baina ez du zertan horrela izan behar, ezta?

Banaka, binaka edo taldeka aurkeztu daitezke. Iraupena da baldintza bakarra, ezin baitute 15 minutuko iraupena gainditu.

Zergatik arte eszenikoak eta ez antzerkia? Aldaera ezberdinetara irekita dago?

Horrela egitea pentsatu dugu taldeek aurkezteko aukera gehiago izateko.

Urte luzez antzerki tailerra izan da Urnietan. Faltan botatzen duzu taldea ez egotea? Antzerki tailerrak zein oroitzapen utzi du zuzen?

Bai, niretzat galera handia izan da tailerrik ez izatea. Zehazki, 2009an sortu zen, herritarren



Mikel Agirregomezkorta. AIURRI

artean antolatutako antzezlari handi baten harira. Marizulo izena zuen emanaldiak. Edu Muruamendiarazek dantza jarri zuen, Antton Jauregik musika, eta nik zuzendaritza lanak egin nituen. Proiektu hartatik abiatu zen gero antzerki tailerra. Hain zuzen ere, duela bi urte arte tailerrarekin ibili gara eta oso proiektu interesgarriak egin ditugu, horregatik, bat-batean desagertzea niretzat eta herriarentzat galera handia izan da. Hori dela eta, lehiaketa honen bitartez antzerkizaletasuna sustatu nahi dugu. Egia da azken urteetan izen emateak behera egin zutela, belaunaldien arteko haustura modukoa eman baitzen,

baina, urte batetik bestera tailerra bertan behera uztea galera handia izan zen. Hala ere, guk jarraitzea erabaki dugu. Maila pertsonalean pozik nago, aurten hiru pertsona gehiago batu direlako, guztira zazpi gara. Niretzako galera handiena herriarentzat izan da, kontuan hartuta, Urnietak baduela tradizioa antzerkigintzan.

Lehiaketak segida izatea litzateke onena?

Bai. Udalarekin hitz egin nuen, aurtengo edizioak izango duen oihartzunaren arabera erabakiko dugula, baina asmoa jarraitzea da. Ondo ateratzen baldin bada, proiektuari jarraipena emango diogu.



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

KULTURA ETA HIZKUNTZA
POLITIKA SAILA



Urnietako
udala

"Gazta Rolling", Azkorten

Poxta Zahar Urnietako gazte kuadrillen elkarteak ez ohiko jarduera antolatu zuen larunbatean: Gazta belardian behera bota eta haren atzetik irten ziren gazte prestuak. Giro ederra izan zen Azkorte inguruetan. Gazte Festak igaro berrian, ekimen betean dira

Lide Ruiz Telleria URNIETA

Gazte Festak amaitu berrian ekimen berria aurkeztu zenuten. Gazteak elkartzen jarraitzeko gogo bizi zaudeten seinale da, ezta?

Bai, uste dugu Urnietako gazte guztiak horretarako gogotsu gaudela. Gazteak batzen garenean, Olinpiadetan edo festetan bildu garen bezala, oso giro ona sortzen da. Bestalde, egia da festaren aitzakia behar izaten dugula batzeko. Horregatik, beharrezkoa ikusten dugu, betiko festetatik kanpo, asteburuetan horrelako gauzak antolatzea. Batez ere, gehiago elkartzeko, eta gure arteko harremanak sendotzeko.

Erantzuna, gainera, bikaina izan zen. Jende askok parte hartu zuen. Espero al zenuten? Segida izango al du?

Ez genekien zer espero. Hasieran, bagenekien zein ezagunek parte hartuko zuten, eta gutxi gorabehera aurreikusitako baina gehiago etorri zen. Egia da, instagrameko publikazioa jende askok birbidali zuela, eta, ondorioz, ez genekien oso ondo zenbat jende

bertaratuko zen. Partaide kopuruari dagokionez, oso pozik gaude, harrera oso ona izan zuen. Gainera, ez zen lesiorik egon, giro oso ona sortu zen eta barre asko egin genuen. Ikusleen aldetik, harrera ere oso ona izan zen.

Segidari dagokionez, oraintxe bertan, ez dugu erantzun bat emateko ahalmenik, dena ez baitago gure esku. Egia da oso pozik gaudela jendeak izan zuen jarrerarekin, jendeak kontuan izan zuen mendian geundela, eta adibidez, ez zen zabor arrastorik ere geratu bertan. Guk errepikatu nahiko genuke, batez ere, jendeak jarrera hori izaten baldin badu. Baina, azpimarratu nahi genuke ez dagoela gure esku bakarrik. Hortaz, aukera badugu errepikatuko da, eta bestela, beste ekintzaren bat jarriko dugu martxan.

Gainera telebistan atera zarete eta sekulako oihartzuna hartu du ekimenak. Gaintuta sentitzen zarete?

Bai, egia esan ez genuen espero telebistan ateratzea. Herriari zuzendutako ekintza bat izan zen, eta harritu zigun guk antolatutako txikikeria telebistan

azaltzea. Oro har, oso balorazio positiboa egiten dugu.

Pozgarria da Urnietatik harago oihartzuna izatea.

Bai, pozgarria da kanpoko jendeak Urnietan antolatzen ditugun gauzak ikustea, beste herrirentzat ere interesgarria izan daiteke. Gainera, Euskal Herrian dagoen gazte kulturarentzat positiboa izan daiteke, erreferentzia gisa hartzeko. Hala ere, nabarmendu nahi dugu herriari zuzendua antolatu dugula; lehentasuna herriko jendeari ematen diogu. Funtsean, herria piztu nahi dugulako, eta herrian gauza desberdinak egotea nahi dugulako. Hortaz, azpimarratu nahi dugu herriarentzat egina dagoela.

Nondik nora atera zen ideia?

Berez ez da ezer berria, askotan ikusi ditugu Cheese Rollingeko bideoak. Pare bat kuadrilla elkartu ginen, eta aurretik ikusitako bideo horiei lotuta, martxan jartzea erabaki genuen. Tokia aurkitzea izan zen zailena, hori erabakita, antolatzen hasi ginen eta aurrera eraman genuen.

Sanmielei begira indar berezia hartu duzue?



Uda beteko giroan elkartu ziren Azkorte inguruetan, aurreko larunbatean. AIURRI



Gaztak eta garaikurrak gazta-biltzaile prestuentzat. POXTA ZAHAR

Bai, herrian giroa pizten lagundu du Sanmieiak indar gehiagorekin hartzeko.

Dagoeneko lanean zaudete uda osteko Sanmielei begira? Zerbait aurreraterik bai?

Hori Txozna Batzordeak antolatzen du, eta bertan Poxta Zaharreko kide batzuk ari dira. Badiugu gauza batzuk buruaneta garaia iristen denean antolatutako ekintzen berri emango dugu.



www.aiurri.eus

Aiurri eskuragarri:

Ebeiz ebeko harpidetza-sistema. Andoainen urte osoko harpidetza-saria 55 eurokoa da. Ale batzuk eskuragarri kiosko eta merkatalguneetan.

Egoitza Orokorra:

Arantzibia plaza, 4/5-behea. 20140, Andoain. Tel.: 943 300 732. andoain@aiurri.eus www.aiurri.eus

Zuzendaria: Jon Ander Ubeda.

Erredaktoreak: Xabier Lasa, Lide Ruiz Telleria.

Maketatzailea: Maddi Trutxuelo.

Kudeaketa, harpidetzak:

Garbiete Ugartemendia. idazkaritza@aiurri.eus

Publizitatea:

Fer Irazu. publizitatea@aiurri.eus

Banatzailak:

Rocio Arias (Andoain), Axun Jauregi, Jeray Gonzalez (Urniet).

Diseinua: Goiena / TOKIKOM.

Zorion agurrak, merkatu txikia: diseinua@aiurri.eus | www.aiurri.eus. Whatsapp-a: 619 163 537.

Lege Gordailua: SS-1078/04.

ISSN: 1698-4870.

Tirada: 4.000 ale.

Inprimategia: Zeroa Multimedia.

EKOIZLEA:



ALJATUAK:



BI UDALERRIEN BABESAREKIN ARGITARATZEN DA:



DIRUZ LAGUNDUTAKO ARGITALPENEA:



BABESLEAK: Aiurriko harpidedunak ezinbestekoak dira.



Sutagarren 103. kontzertua ikusiko du

Jon Arizmendi Medina asteak darama ekainaren 20ko gaua noiz iritsiko zain. Su ta Gar taldearekin zuzenean gozatuko duen 103. aldia izango da berarentzat. Talde batekiko miresmenare eta pasioaren adibide argia da

Xabier Lasa ANDOAIN

Zuzenean asko dira Su ta Garrekin...

Halaxe da, eta lehenbiziko kontzertuen atarrietan sentitzen nuena segitzen dut sentitzen oraindik ere. Larunbatekoari begira, jada tentsioa nabari dut gorputzean, emozioa...

Ehundik gora kontzertu horietara, bakarrik ala lagunekin joan izan zara?

Ia beti, baten batekin gozatu izan ditut kontzertuak, batzuekin ez bada besteekin. Kuadrillako jendearekin hasieran, anaiaren lagunekin ere bai, bikotearekin gero... Azken urtetan, Beñat Belokik, Aitor Aranak eta hirurok Su ta Gar ize-

neko whatsapp sortua daukagu, eta horrela jartzen ditugu hitzorduak kontzertuetara joateko. Zailxeago daukagu azken aldian dena esatera, haurren aitak baikara Beñat eta biok.

Berezia izango da larunbatekoa hirurontzat; afarirako geratuak gaude, eta handik Nafarroa plazara giro ederrean joango gara, gozatzeko prest.

Zenbatetan entzun behar izan duzu txaplata, frikia... zarela eta nahikoa duzula...

Makina bat alditan! Badira nirekin bolada batean joan izan direnak kontzertuetara; eten egin dute hasitako bidea, "kitto! aski da!" esan dute azkenean.

Denei ulertzen diet, eta nik uste, beraiek ere errespetatzen dutela nire zaletasuna.

Jada ez ote zaren aspertu ere galdetuko zizuten.

Jakina! Baina lehen esan dizudan bezala, aurreneko aldietan bezainbat segitzen dut gozaten gaur egun ere. Bigarrenengo lerroan jartzen naiz, eta zoramena izaten da niretzat; abestu, dantzatu... Izerdi patsetan bukatzen dut, eta ezarria urratuta.

Eta etxean nola daramate zure zaletasun berezi hori?

Bikoteak ezagutu ginenetik bazekien norekin arrimatu zen, ingurukoek ere jakinaren gainean jarri zuten (barreak). Elkarrekin



Arizmendik kontzertuen zerrenda egina dauka (noiz, non, nork antolatua...). AIURRI

joaten ginen hasierako kontzertuetara, baina berak ere kitto esan zuen halako batean. Oraingoz ondo daramala halako bikotea edukitzea, esango nuke.

Haurra eta biok ere izango dituzue zuen ika-mikak autoan sartu orduko, batek Pirritx, Porrotx eta Mari-

motots entzun nahi, besteak Su ta Gar...

Ez pentsa! Etxean, musika-kasakoak belarrietara eraman, "aita, jarri Metalica!" esan, eta nire imintzioak egiten hasten zait. Burlazalea baino gehiago, losintxari bat dela esango nuke.

Poztuko nintzateke heavy musika partekatuko balu aitarekin noizbait, baina nahi duena egin dezala...

Zer dauka Su ta Gar taldeak, hainbeste erakartzen zaituena?

Su ta Garretik, bere doinuak, bere estiloa, bere zuzeneko indartsua, eta batik bat, bere abestietako letrak ditut gogoko. Euskaraz abesteaz gain, erabat identifikatzen naiz hitzetan taldeak adierazten duen ideologiarekin, mundu-ikuskerarekin.

Honez gero, ondo ikasiak izango dituzu taldearen zuzeneko xehetasun guztiak...

Zer esango dizut, bada! Gitarra jotzen ikasi nuen modu autodidakta batean, eta nahiz eta partiturak eta ez ezagutu, horri esker, oraintxe jartzen badidazu taldearen argazki bat, Gorosabelen eskuko hatzen posturagatik-eta, asmatuko nuke zein abesti ari diren interpretatzen, ziurrenera.

Musika zale izanik, ez zara mugatuko Su ta Garrera.

Heavy musikazale amorratua naiz, eta Metallica, Iron Maiden eta Su ta Gar ditut talde kuttu-

nenak. Egia esan, pribilegiatua sentitzen naiz horietatik bat behintzat noiznahi ikusi dezakedalako zuzenean. 2022ko urtea gogoangarria izan ziren niretzat, hiruren zuzenean eduki bainituen aurrez-aurre; Metallica Bilbon, Iron Maiden Bartzelonan eta Su ta Gar ez dakit zenbat alditan Euskal Herrian.

Su ta Gar behin bakarrik ikusi dut Euskal Herritik kanpo, Londonen izan zen, eta orduan hainbat euskal taldeekin egundoko kontzertu solidario batez gozatzeko aukera eduki genuen.

Taldeak ba al daki zer nolako jarraitzaile fidela daukan Andoainen?

Andoaingo gaztetxean pare bat kontzertuetan antolaketa lanetan ibili izan naiz, eta txanda horietan azaldu izan diet nire grina. Baina egia esanda, ez dute hainbeste arreta jartzen jarraitzaileen kontu horrekin. Su ta Garren benetakotasuna jarrera horrekin ere adierazten dela iruditzen zait. Diren bezala jokatzeko dute, ez dira makurtzen marketinagatik edo *postureo* hutsagatik, beste talde askoren antzera.

Ehundik gora kontzertu horietatik, izango dituzu berezi-bereziak egin zaizkizunak...

Ez nuke bukatuko kontakizunarekin, hasiko banintz hau eta beste azaltzen, izan ere, niretzat denek baitaukate oroitzapen bereziren bat. Nolanahi ere, batzuren-batzuk aipatzearen, jakina, lehenbizikoa, 2000an Zizur Txikian ospatu zen Nafarroa Oinez-en egin zutena; 12 urte nituen orduan (Su ta Gar jaio zen urte berean jaio nintzen ni ere), gurasoekin izan nintzen egun hartan. Andoaingo gaztetxean egin dituenak ere aipatuko nituzke. Baita ere, nire ehungarrena izan zena, iaz Lakuntzan egin zen Hatortxu Rock jaialdia; kuadrillarekin joan nintzen, eta ederki asko pasa genuen!

la 40 urte (16 disko) daramatza taldeak oholatza gainean. Bere eboluzioa ondo ezagutzeko aukera eduki duzu. Zer esango zenuke eskainiko duela Nafarroa plazan, San Juan jaietan?

Ez da gainbehera doan taldea, kontra baizik. Egun, bere ibilbidearen gailurra bizitzen ari dela esango nuke, benetan. Izugarriko eskarmentua pilatuta



Arizmendi Su ta Garreko musikariek Andoaingo gaztetxean, 2013an.. AIURRI

dauka, Aitor Gorosabelek ahotsa sekula baino zailduagoa dauka (eztarriko bi operazio izan dituen arren), eta eszenategian egundoko ikuskizuna ematen segitzen dute. Azken aldian bi orduko kontzertuetan, beren lehenbiziko bi diskoko ("Jaiotze basatia" eta "Hortzak estuturik") hainbat

abesti jotzen ari dira. Beren diskografiako lanik bikainenak eta ezagunenak dira horiek, eta publiko zabalarentzat oso ikuskizun erakargarria egiten dute. Musika zale edonori gomendatuko nioke larunbateko kontzertua. Sekula ez da berandu Su ta Gar zale bilakatzeko!



ANDOAIN
mapfre
MUJIKA TOLARETXIPI ANAIK

Jai zoriontsuak!

Eskola kalea, 8. ANDOAIN
943 592 307
Faxa: 943 300 161
imujika@mapfre.com




andoa**INDARRA**
euskaraz



Enkarguak jasotzen ditugu
Jai zoriontsuak opa dizkizuegu

Zumea 18, Andoain
943 59 37 77



EGITARRAUA: EKAINAK 19-24

EKAINAK 19

OSTIRALA

17:00 Joko sorta 4-17 urte bitarteko haur eta gazteentzat, Goikoplazan.

18:30 Kalejira, Goikoplazara: Lebiton Buruhandi eta Erraldioen konpartsa, Olagain Txistularien taldea, Udal Musika Eskolako eskusoinu taldea eta Gora Kaletxiki txaranga.

19:00 Pregoia eta jaien hasierako txupinazoa, Joxemari Oiartzabal Beloki musikari eta sortzailearen eskutik, Udaletxeko balkoitik.

20:30 Bertzesfer musika taldea, Goikoplazan.

23:00-03:30 Nafarroa plazan: Marea, Platero y tu eta Extremoduro taldeen tributu-banda.

EKAINAK 20

LARUNBATA

09:30-14:00 Pilota partidak, Arraten: eskuzko San Juan txapelketako finalak: benjamin, alebin, infantil eta kadeteak.

10:30-13:00 16 urtez azpikoek xake txapelketa, Goikoplazan.

11:30 Bizikleta festa, Andoingo Txirrindulari Eskolaren eskutik, Goikoplazan.

12:00 Kantu kalejira, Goikoplazatik hasita.

12:30 Olagain Txistulari banda, Goikoplazan.

14:30 Bazkari herrikoa: Txuleta-jana La Salle Berrozpe ikastetxearen jolastoki estalian.

16:00-21:00 Zesta-puntako San Juan txapelketako finalak eta kinielak, Arraten.

17:30-20:00 Andoaindarra elkartearen danborrada.

18:00 Klaap dantza eskolaren erakustaldia, Goikoplazan.

19:00-21:30 Distopia Elektrotxaranga.

22:00-23:15 Joseba eta Bakartxo dantza eskolaren ikuskizuna, Goikoplazan.

23:00-03:30 Su Ta Gar taldearen kontzertua eta DJ Makala disko-jartzailea, Nafarroa plazan.



Aurten taloak egingo dituzte Palestinaren alde. Igande arratsaldean, Goikoplazan. AIURRI

EKAINAK 21

IGANDEA

10:00 Erraldioen konpartsen topaketa: Pasaia, Amasa-Villabona eta Lasarte-Oriako partaideak.

11:00-13:00 Kontzejupeko txapelketako finalak.

11:15 MuGaz taldeko ikasleen kontzertua, Goikoplazan.

11:45 8-11 urtekoen Kross mistoa.

12:00 Bikoteen Kross mistoa. Irteera eta helmuga Arteta kalean.

15:30 Junior mailako Gipuzkoako Txirrindulari Itzulia.

16:00-18:00 Mahai-jolas erraldoiak eta uraren festa, Leizaur parkean.

17:00-21:30 Taloak, Palestinaren alde, Goikoplazan.

18:00 Ezekiel DJ disko-jartzailea Nafarroa plazan.

20:30 Puro Relajo, Goikoplazan.

22:30 Zezensuzkoa, Goikoplazan.

EKAINAK 22

ASTELEHENA

13:30 Agintarien harrera, 80 urteko andoaindarrei. Ondoren, bazkaria.

17:30-19:30 DJ, graffiti/aerografia erakustaldia eta rap lehia, Leizaur parkean.

18:00 Haur danborrada.

20:00-23:00 Erremontea, Arrate pilotalekuan.

21:00-00:30 Kontzertuak, Nafarroa plazan: Oihane Ulanga (artista andoaindarra), Devil Records, Guxo, CSK013 eta Amilibia DJak.

22:30 Zezensuzkoa, Goikoplazan.

EKAINAK 23

ASTEARTEA

10:00-14:00 Haur parkea, Goikoplazan.

17:30-18:30 Txirri, Mirri eta Txiribiton, erretoretxe aurrean.

18:00 Joselontxo's Txaranga, Nafarroa plazan.

19:00 Alberto Agirre abesbatza eta Udal Musika Eskolako abesbatza, San Martin elizan.

Euskal Herriko trofeoa KEINUKo txapela da!!!

Goikoplaza, 5. ANDOAIN.

637 283 224

keinuandoain@gmail.com



GORA SANJUANAK!

KEINU



ELIZONDO

FERRETERIA

TABERNA

GORA SANJUANAK!

La Salle etorbidea, 1- Andoain

Ferreteria
943 590 302

Taberna
943 592 802

20:00 On Pedro Aizpuruaren Salbe Gorena, San Martin elizan.

20:15 Alkatea eta Udalbatzaren soka-dantza, Goikoplazan.

21:30 Olagain Txistulari bandaren kalejira.

22:30 San Juan sua, Goikoplazan. Kanpai-errepika, txalaparta eta suziria.

22:45 Agustin de Leitza elkartearen danborrada.

23:30-00:30 Queen taldearen tributoa, Goikoplazan.

23:30-04:00 Mirua eta Bengo musika taldeak eta Siwanaba DJ disko-jartzailea, Nafarroa plazan.

EKAINAK 24

ASTEAZKENA

08:30 Diana, dultzaineroekin.

10:30-14:30 Artisautza eta janari azoka, Goikoplazan.

11:00 Meza Nagusia, San Martin elizan.

12:00 Axeri dantza, Goikoplazan.

17:00-20:00 Artisautza azoka, Goikoplazan.

17:00-19:00 Haurrentzat makrame ontzi apaingarria, lastargia, txapak, ahate harrapatzea eta globoflexia.

18:00-19:30 Hektor Folk, Alaitz Roteta eta Gorka Valdesek kaleak girotuko dituzte.

18:00 Herri Kirolak, Goikoplazan. Bikoteko lehia: Iker Vicente eta Ugaitz Mugerza; Julen Alberdi "Txikia IV" eta Arkaitz Etxebeste. Harri jasotzen erakustaldia: Anitze Zumeta, Udane Ostolaza, Estefi Etxebeste. Harri mota ezberdinekin, elkarren aurkako: Mikel Lopetegi "Urra" eta Beñat Telleria.

19:30 Bertso jaialdia, Goikoplazan: Aitor Mendiluze, Nerea Ibarzabal,



Herri-kirolak, asteazken arratsaldean, San Juan egunez. AIURRI

Alaia Martin, Andoni Rekondo, Sebastian Lizaso eta Nerea Elustondo ariko dira kantuan. Gai-jartzaile: Unai Ormaetxea.


20:00-22:00 Trikidantz, Nafarroa plazan.

23:00 Kalejira piroteknikoa, Juanita Alkain plazatik Goikoplazara.

AIURRI.EUS

ATAL BEREZIA JAIETAN


Aiurri.eus Agenda, albisteak, argazki-bildumak. bideoak...



BAIETZ GABE, EZETZ DA

JAIETAN ERASO SEXISTARIK EZ!!

EZ IZAN KONPLIZE



ANDOINGO UDALA



AITA LARRAMENDI IKASTOLA

Txistoki pasealekua, z/g
20140 - Andoain
Tel.: 943 593 525
andoain@ikastola.eus
www.andoainikastola.eus



ikastoleneiKartea



San Joanetan,
mingaina euskaraz jarri dantzari.



KUTTUN
KAFETEGIA



GORA
SANJUANAKI!

943 24 61 54 - @kuttunkafetegia
Agustin Leitza, 5. ANDOAIN



Juantxo Arregi, Xatonio Irazu, Izaskun Beraza eta Edurne Gaston. AIURRI

Edurne Gaston izango da Axeri Dantzaren buruzagi berria

Azken urtetan ardura hori izan duen Izaskun Berazak emango dio dantza-herriko horretan berebiziko ardura daukan buruzagiaren gerrikoa Edurneri Gastoni

Xabier Lasa ANDOAIN

Ekainaren 24an, eguerdiko 12:00etan ekingo dioten Axeri Dantzan barrena gauzatuko da lekuko aldaketa hori; Axeri Dantza beraren egitura eraldatuko ez duen erritu berezi baten bidez izango da, hain zuzen. Ia laurogei dantzarien, Olagain Udal txistulari elkarteko kideen eta Goikoplazara hurbilduko diren ikusleen begiradapean.

Hautaketa-prozesua

Edurne Gaston bosgarren buruzagia izango da, Lizar Makil Dantza Taldeak Aduna eta Andoaingo Axeri Dantza 1975ean berreskuratu zuenetik.

Urte hasieran, buruzagitza aldaketarako prozesuari ekin zioten axeri dantzariak, bere talde eragileak bultzatuta. Halako eginkizuna betetzeko per-

tsionak bete beharko lituzkeen ezaugarriak adostu ziren, eta hautagaiak aurkezteko epea ireki zuten. Bost kide bereizi zituzten, eta azkenik, horien artean Edurne Gaston izan zen hautatua, Kotoi elkartean apirilaren 22an egin zen axeri dantzarien batzarrean.

Gastonek aitortu zuen berebiziko ilusioarekin hartzen duela buruzagitza erantzukizuna. "Esker oneko sentitzen naiz dantza kideekin, konfiantza jarri dutelako niregan; harrotasunez bezainbat ardurasuki helduko diot eginkizunari".

Era berean, zera azpimarratu nahi izan zuen, "axeri dantzari guztiek osatzen dugu Axeri Dantzaren komunitatea; unean-unean ahal duenak ahal duena eginez biziberritzen ari gara

Urrats
inprimategia

Bluxak, kamixetak, zapiak, txapak...
Egin zuen kuadrillako ezaugarria

Urrats: 688 61 85 48
urrats@urratsinprimategia.com

Gau (koti) Jaletarako prest?

Gora Sanjuanak!

MIZPIRADI
SAGARDOTEGIA

Urte osoan zabalik!

943 59 39 54
Leizotz, 14 - ANDOAIN - www.mizpiradi.eus



Zenbait axeri dantzari Kotoi elkartearen apirilaren 22an egin zuten batzarraren ostean. AIURRI

hain geurea eta maitagarria den herri tradizio hau. Hala izan da iraganean, eta orainean zein etorkizunean hala izaten jarrai dezan saiatu beharko gara guztiok".

Bosgarren buruzagia

Juantxo Arregik hartu zuen hasieratik Andoaingo plazan dantza-taldearen buruzagi edo kapitaina izatearen ardura. 2009an, Arregik ardura hori utzi, eta Katto Amilibia izan zen bigarren buruzagia. 2012ko Axeri Dantza gidatu ostean, Amilibia uztailean hil egin zen mendu istripu batean.

Hurrengo urteko dantza saioan, 2013an, Xatonia Irazuk hartu zuen lekukoa, eta sei urtez luzatu zen aroa (2013-2018) bete zuen. Hurrengo urtean, Izaskun Beraza heldu zen. Be-

razaren agintaldiaren ostean dator Gastonena, hain zuzen.

Aparteko sinbologia duen ardura

Buruzagia da Axeri Dantzako pertsonai nagusia. Berak garatzen duen errepresentazio folkloriko honen esanahira, muinera.

Axeri Dantzako hainbat joakoetan erreparatu duten ikerlarien arabera, dantzak berak gizarte paganoetako erritu inizatikoak jasotzen ditu bizi-biziki, euskal folkloreko dantza gutxi bezala jaso ere. Kolpeak, pertsekuzioak, borrokak, desafioak, garaille-garaituak, dorreak, herrenak, irrintziak... elementu horiek eta gehiago dira horren adierazgarri.

Alde horretatik, munduko makina bat kulturetan gizaki orojakilea da buruzagia, kapi-

taina, txamana... Jakinduriaren altxorra, naturaz gaindiko boterearen jabea.



Edurne Gaston iaz Goikoplazan. AIURRI



Iazko emanaldiko argazkia. AIURRI

Olagain Txistulari Elkartearen kontzertua, ekainaren 20an

Eguerdiko 12:30tan hasita, Goikoplazan, Urki Dantza Taldea, Antonio Calleja eta Andoni Gonzalez lagun hartuta

Erredakzioa ANDOAIN

Olagain Txistulari Elkarteari aitortu behar zaio emanaldi bereziak mimoz antolatzeko duen prestutasuna. Eskertzekoa da ahalegin hori, ikuslearen mesedetan izan ohi dena. Dagoeneko gonbita luzatu dute txistulariek, alboan izango dituzten artisten izenak aurreratuz: "atsegin handiz gonbidatu nahi zaitugu Andoaingo Olagain Txistulari elkartearen kontzertura. Datorren ekainaren 20an, eguerdiko 12:30tan hasita, izango da Andoaingo Goikoplazan. Jaiaren hasiera honetan, gure ohiko erreperitorioa partekatzeaz gain, lagun bereziak izango ditugu oholtza partekatzen, besteak beste, Antonio Calleja, Andoni Gonzalez eta Urki Dantza Taldeko dantzariak. Kontzertua musikaz gozatzeko, jai giroan elkartzeko eta txistu doinuekin emoziozatzeko aukera izango da".

Erreperitorio aberatsa

Antton Valverde, Niko Etxart, Neil Diamond... izen handien kantuak entzungo dira larunbatean. Dagoeneko ezagutarazi dute erreperitorioa: Aritzola, Bertso-doinuak, Animalien kantak, Maitasunez hil, Txulalai, Polka Pik, Birigarroa, Bordondantza, Sweet Caroline eta Euskal Rock&Rolling kantuak joko dituzte larunbat eguerdiko emanaldian.

Artista ugari, oholtza gainera

Jon Ander Belamendia Arruabarrena zuzendaritzapean, txistulariez gain, lagun ugari igoko dira oholtzara:

- Ahotsa: Antonio Calleja.
- Gitarra: Javi Gestoso.
- Esku-soinua: Andoni Gonzalez.
- Tronpeta: Jaime Eguzkitza eta Edorta Setien.
- Dantza: Urki Dantza taldea.
- Aurkezlea: Garazi Jauregi.

ERREMONTARI

FINALAURREKOA

EKAINAK 22, ASTELEHENA
18:00etan / GALARRETA JAI ALAI

IKUSKIZUN PARTIDA 2 SET, 15 TANTORA • 3. SETA, 8 TANTORA

SUSPERREGI · BARRENETXEA IV vs ALDABE · LARRAÑAGA

ERREMONTARI · FINALAURREKOA 2 SET, 15 TANTORA • 3. SETA, 8 TANTORA

EZKURRA II · AZPIROZ vs ANSA II · ZUBIRI



Eskualdeko zenbait ordezkarik politikok eta Euskara teknikariek Andoaingo Bastero kulturgunean zozkatu dituzte 2025ean parte hartu dutenen sariak. ANDOAINGO UDALA

Gidabaimenaren atal teorikoa euskaraz ikasi eta azterketa gainditzea bultzatzen jarraitzen dute

Zozketa bateratua azkenekoz egin dute eskualdeko udalerriek eta horietako gehienak dirulaguntza zuzenak emateko bidea urratzeko prest daude. 69 izan dira 2025ean gidabaimenaren atal teorikoa euskaraz egin eta gainditu dutenak

Buruntzaldea

Gidabaimenaren atal teorikoa euskaraz ikastea eta azterketa euskaraz egitea bultzatzeko asmoz, 2010ean jarri zuten martxan Gidabaimena Euskaraz egitasmoa Buruntzaldeko sei udalek: Andoain, Astigarraga, Hernani, Lasarte-Oria, Urnieta eta Usurbil. Hamasei urteotan lankidetzan aritu dira eskualde horretako autoeskoletan eta tarte horretan 1.300 herritar baino gehiagok parte hartu dute eta zenbaitek zozketa bidezko sariak jaso dituzte.

Iaz 69 herritar izan ziren gidabaimenaren atal teorikoa euskaraz egin eta gainditu zutenak: zazpi Andoain, zortzi Astigarragan, 28 Hernanin, sei Urnietan eta hogeii Usurbilen. Zozketa ekitaldia Andoaingo Bastero kultur-

gunean aurrera eraman zuten eta bertaratu zirenek jakinarazi zuten, aurtengoa izango da zozketa bateratua egin duten azkeneko aldia. Izan ere, azken urteetan parte hartzea jaisten ari dela kontuan izanda, uneotan dirulaguntza zuzenak emateko bidea urratzeko prest daude udal gehienak, bakoitzak bere erara. Sistema hori ezartzen aitzindaria Lasarte-Oriako Udala izan da eta horregatik ez zuen ekitaldi horretan parte hartu.

Arestian aipatutako ekitaldi horretan 400 euroko zortzi sari zozkatu zituzten eta hauek izan ziren irabazleak: Maren Jauregi Ugartemendia eta Nahia Gorostidi Lopez (Andoain); Enaitz Isasti Zabaleta (Astigarraga); Eki Sanchez Balerdi, Endika Rekondo Murua eta Ane Livi

Santacruz Elozegi (Hernani); Hegoi Lizaso Lopez (Urnietan); eta Saray Hernandez Etayo (Usurbil). Horieta zozkatu zutenak lekuokotzak jaso ditugu eskualdeko zatiduran.

Irabazleak iragartzearekin batera, egitasmoaren arduradunek eskerrak eman zizkieten bat egin duten eskualdeko autoeskoletan: Andoaingo Bengoetxea eta Vallina CAP; Hernaniko Hernani, Lagunak eta Otamendi; eta Urnietako zein Usurbilgo Solozabal.

Material "eguneratua eta oso txukuna"

Gidabaimenak euskaraz egitasmoa Euskadiko Autoeskoletan Federakuntzak koordinatu eta kudeatzen du, Eusko Jaurlaritzaren babesarekin. Hamasei

urteko ibilbideko mugarrietako bat 2024an ezarri zuten: webgunea (*gidabaimena.euskaraz.eus*) berritzeaz gain materiala osatu eta eskuliburuak argitaratu zituzten A, A1, A2, AM, B, C, C1, D, D1 eta E baimenetan. Atari digital horretan jaso zuten baita ere euskarazko eskaintza duten autoeskoletan mapa; 160 zentro baino gehiago ari dira horretan Euskal Autonomia Erkidegoan.

Eta webgune horretan saltseatzten dutenek topatuko dute baita ere eskaintza erakargarri bat, izan ere, gidabaimenaren atal teorikoa euskaraz prestatu eta egiten dutenen artean bi ziklotomotor elektriko zozkatuko dituzte abenduaren 3ean, Euskararen Nazioarteko Egunean. Antolatzaileek jakinarazi dute azterketa teorikoa euskaraz egin dela egiaztatzeko ziurtagiria eskatuko dutela. Zozketan parte hartzeko unean eginda ez dutenak hiru hilabete izango dituzte hori aurkezteko aipatu zozketaren ondoren.

"Erosoa eta naturala" egin zaie honetarako ere euskaraz ikastea



Hegoi Lizaso Lopez urnietarra izan da 2025eko ekitaldiko sarituetako bat. URNIETAKO UDALA

Buruntzaldea

Gidabaimenaren atal teorikoa euskaraz egin eta gainditu izanagatik sarituak izan diren hiru ikaslerekin hitz egin dugu prozesuan zehar nola sentitu diren eta urratsa zergatik egin duten jakiteko. Endika Rekondo Murua hernaniarra, Hegoi Lizaso Lopez urnietarra eta Saray Hernandez Etayo usurbildarra animatu dira bizitako kontakizunarekin.

Hiruen ama hizkuntza da euskara eta betidanik ikasi dute hizkuntza horretan. Beraz, "erosoa eta naturala" egin zaie prozesua mintzaira horretan burutzea eta gustura jardun dira. "Egia da gidabaimena ateratzea erronka dela eta ikasteari denbora eskaini behar zaiola baina euskaraz egiteak lagundu dit edukia hobeto ulertzen eta konfiantza gehiagorekin prestatzen", aitortu du Rekondo. Hernandez ere ederki moldatu da, nahiz eta onartu duen "kontzeptu tekniko batzuk" barneratzea zertxobait kostatu zaiola.

Gidabaimena atera nahi eta hizkuntza aukeratzekoan zalantzan dabiltzainei prozesua euskaraz egitea gomendatu diete hiruek: "Ingurukoei ari naiz atal teorikoa euskaraz egitea aholkatzen, batez ere, txikitako hizkuntza hori dutenei. Niretzako, txikitatik erabilitako hizkuntzan azterketa hori egitea errazagoa izan da eta beste askorentzat ere horrela izan daitekeela uste dut", azpimarratu du Lizasok.



Dirulaguntza zuzena emateko bidea urratzen hasi dira eskualdeko udalerriak

Euskara "eguneroko esparru praktikoetan egon dadin erraztea" da helburua

Buruntzaldea

Hamasei urteko ibilbidea urratu duen Gidabaimena Euskaraz egitasmoari beste buelta bat eman eta parte hartzea sustatze aldera, dirulaguntza zuzenak ematen hasiko dira Andoain eta Lasarte-Oria. Aurrera begira, aukera hori ezartzea aztertuko dute datozen hilabeteetan Astigarragak eta Hernanik ere. Era batera edo bestera izanda ere, sei udalerrietako ordezkariak argi utzi dute erraztasunak ematen jarraituko dutela gidabaimenaren atal teorikoko azterketa euskaraz egin nahi duten herritarrei.

Sistema hori ezartzen aitzindaria Lasarte-Oriako Udala izan da. Erakunde horretako Euskara zinegotzi Estitxu Alkortaeren hitzetan, neurri hori udalak hizkuntza normalizaziorako duen strategiaren barruan sartzen da, euskara "eguneroko esparru praktikoetan ere egon dadin errazteko". Gaineratu du azterketa teorikoa euskaraz ikasi eta egiteak "espazio berrietan hizkuntzaren erabilera indartzen" laguntzen duela.

Hori horrela, Lasarte-Orian erroldatuta dauden eta gidabaimenaren azterketa teorikoa euskaraz egin eta gainditzen

dutenei 500 eurora arteko beka ematea aurreikusten du ekimenak. Horrek esan nahi du, udalak azterketa teorikoaren matrikularen kostua ordainduko duela, prestakuntza prozesu horretan hizkuntzaren erabilera bultzatuta.

Udalerrri horretako BideOn eta Mugica autoeskolek ongi baloratu dute egitasmoa. Formazioa hizkuntza bat baino gehiagotan eskaintzeak dakarren ahalegina azpimarratu dute, baita "ikasleentzat euskarazko baliabideak izatearen garrantzia" ere. Era berean, esan dute gisa horretako ekimenek hezkuntza eta lan-



Lasarte-Oriako Udala izan da sistema berriaren aitzindaria. TXINTXARRI

bide esparruan hizkuntzaren erabilera normalizatzen laguntzen dutela.

Andoainek ere egin du urratsa eta zehaztu ditu dirulaguntza zuzenak emateko baldintzak. Bi udalerrri horietako ordezkariak

eskatuko dituztenen gainekoak jaso ditugu azpialdeko koloretako koadroetan: diruz lagunduko dutena; eskatzaileek bete beharko dituzten baldintzak; epeak eta eskaera moduak; eta ordainketa kronologia.

Zer lagunduko dute diruz?

Gidabaimenaren atal teorikoaren matrikularen kostua (AM, A1, A2 eta B lizentzien azterketa egin eta gainditzea).

Andoainen: Gastuaren % 50a, gehienez 180 euro eskatzaile bakoitzeko.

Lasarte-Orian: Gehienez ere 500 euro pertsonako.

Bete beharreko baldintzak

Andoainen edo Lasarte-Orian erroldatuta egotea.

Gidabaimenaren atal teorikoa euskaraz atera izana frogatzea egiaztatari bidez.

Udalekin zorrik ez izatea.

Epeei eta eskaera moduei buruz

Andoainen: irailaren 14tik urriaren 30era (biak barne).

Lasarte-Orian: urtarrilaren 1etik irailaren 30era (biak barne).

Beharrezko agiriak: eskaera orria, matrikularen ordainagiria, atal teorikoa gainditu izanaren agiria eta kontu korrontearen titulartasun ziurtagiria.

Ordainketa kronologia

Andoainen: behin-behineko ebazpena azaroaren 18an atarako dute; behin betikoa, aldiz, abenduaren 17an. Abenduan ordainduko dute dirua.

Lasarte-Orian: eskaerak aurkeztutako epea bukatzean, baldintzak betetzen dituztenei ordainketa bakarrean pagatuko diete urtea amaitu aurretik.

Eskualdeko beste udalerrietan, zer?

Buruntzaldea osatzen duten sei udalerrietatik gehienak prest daude dirulaguntza zuzenak emateko bidea urratzeko, bakoitzak bere erara. Hernani eta Astigarraga ari dira aukera hori aztertzen eta informazio gehiago emango dute datozen hilabeteetan. Modua zeinahi izanda ere, denek segiko dute erraztasunak ematen.

ZOZKETA GIDATU EUSKARAZ

@GIDABAIMENAK_EUSKARAZ



gidabaimenakeuskaraz.eus





Adarramendi abesbatza, San Miguel elizaren kanpoaldean. Emanaldiko argazki sorta eta bideoak Aiurri.eus-en ikusgai. AIURRI

Adarramendiren debut pozgarria

Harrera ezin beroagoa egin zioten urnietarrek herritarrekin sortu berri den Adarramendi Abesbatzari, joan den astean. Estreinaldi dotorea egin zuen abesbatzak Josu Elberdin Badiola konpositore eta zuzendari pasaiarraren gidaritzapean

Xabier Lasa URNIETA

Poza agertu zuen Elberdin zuzendariak, estreinaldiaren ostean. “Oso pozgarria izan da! Harro nago taldeko abeslariak erakutsi duten jarreragatik. Egin kontu orain hilabete batzuk zerotik hasi ginela, eta batzuentzat lehengoa aldia izan dela jendaurrean abes- tea. Urnietako emanaldirako zazpi abesti landu ditugu, eta haiz eta astean ordu eta laurden baino ez eduki prestaketarako, jarrera ezin emankorragoa erakutsi dute denek ere”. Ilusioa jartzeko, eta batik bat, buruarekin abesteko mezua zabaldu izan diela abesbatzako kideei, aitortu zuen Elberdinek. “Ondoko lagunei entzutea eskatu diet, elkarrekin bidea egiteko. Izan ere, askotan, abesbatza batean, garrantzitsua ez da abestea, entzutea baizik.

Kontzertuan barrena, abesbatzako kideak gozaten ikusi zi-

tuen, eta detaile hori ere azpimarratu nahi izan zuen Elberdinek. “Urnietako publikoari esker oneko agurra abestuz ekin genion kontzertuari, eta iruditzen zait hortik aurrera poztasunez eta hunkimen ukitu puntu batekin aritu direla; betiere, zuzeneko emanaldietan behar izaten den tentsio puntu hori galdu gabe. Beren begietan, aurpegietan... horixe nabaritu dut”.

Aurrera begira

Adarramendi Abesbatzak ekainaren 17an, ostegunarekin, bigarren hitzordua dauka jarrita Kursaal, Adimen Hariak egitasmoarekin bat eginda. Bana hortik aurrera, taldeak eraman beharreko pausoak dauzka go-goan Elberdinek. “Zabaltzen joango gara jorratu beharreko kantutegia, baina batik bat, filosofia jakin bat transmititzen

segi nahi nuke: alegia, abesbatzaren lehenbiziko helburua ez dela abestea, hori bidea dela; oinarrizkoena, taldean gustura sentitzea dela, entseguetara gogoz joatea, errespetuzko eta laguntasunezko giroa sustatzea, nork bere sentimenduak abestuz erakutsi ahal izatea...”.

Urnietako musika zaleei honako mezua helarazi nahi izan zien azkenik: “Saiatuko gara aurrerantzean ere, edozein jai edo ospakizunetarako emanaldiak prestatzen. Elkar ikusiko gara!”.

Abeslariak ere, pozez txoratzen

Arantza Miguez, Olatz Oñati, Laura Sotillo Adarramendi abesbatzako hiru abeslari dira. Normala den urduritasunaren gainetik ilusioz gainezka topatu genituen San Juan plazan, kontzertuari ekin aurretik. Miguezek hartu zuen hitza, lehenbizi-



Olatz Oñati, Laura Sotillo eta Arantza Miguez. AIURRI

koz: “gaztetan ibilia nintzen kantuan, eta beti eduki izan dut buruan okasioa etortzen zitzaidanean berrekingo niola. Abesbatza osatu zenean, baina handik gutxira hasi nintzen. Zoragarria da entseguetan bizitzen dugun giroa, zuzendariari esku eta umore onari esker! Askok ari gara ikasten kantuan!”.

Egape ikastolan irakasle ari den donostiarra da Olatz Oñati, abesbatza parte hartzeak, kanturako zaletasuna garatzeaz gain, onura gehiago ekarri dizkiola aitortu zuen. “Urnietako jendea ezagutzeko lagungarri egiten ari zait, eta urnietar sentiarazten dit. Txikitik, musikagintzan, pianoa-eta ikusi nuen. Baina dena utzita neukan. Adarramendik denetariko ibilbidea daukagunok bildu gaitu, taldean abestu izan dugunok, inoiz egin ez dutenak..., eta Arantza aipatu duen eran, zuzendariak badau-

ka trebezia gutariko bakoitzari barruan daukagun guztia ateratzeko. Alde horretatik, gozamen hutsa dira entseguak”.

Ostegunean Adimen Hariak egitasmoak Kursaal antolatu duen kontzertua hartu zuen gogoan Oñatik; kultur ekintza baten eskutik giza harremanak sustatzea duena helburu, alegia. “Filosofia horrekin bat egiten du gure abesbatzak”.

Laura Sotillo kantu-kideak ere bat egin zuen identifikazio horrekin. Urnietan bizi den Leongo da bera. “Modu polita gertatzen ari zait herrian integartzeko, bertako herritarrek gehiago ezagutzeko eta euskara gerturatzeko. Euskaraz abesten ditugun abestien hitzak ez ditut ulertzen, baina ondoan edukitzen ditut talde-kideak, berehalako itzulpenak egiteko. Zuzendariak errietaxoren bat egin izan digu, isiltzeko aginduz”.

“Erantzukizuna eskatzen diogu Foru Aldundiari”

Udal Gobernuaren ustez, Lazo trafikoa arazoari erantzuteko esku-hartze partziala da: “Aldundiari eskatzen diogu Andoaingo herritarrak kontuan har ditzala eta aurkez dezala proposamen integral, argi eta gauzagarri bat”



Udal Gobernu taldeak agerraldia egin zuen asteazken goizean. AIURRI

Jon Ander Ubeda ANDOAIN

Zalantzi agertu da Udal gobernu taldea, Gipuzkoako Foru Aldundiak argitara eman duen irudi-sorta eta azalpenekin. Zalantzan jarri baitu zabalduko irudi osagarrien balioa, egitasmoak oraindik lizitatu gabe daudelako: “baloratzen dugu Aldundiak, azkenik, aitortu izana Andoaingo N-laren arazoak ez direla soilik Lazoarekin konpontzen. Funtsezkoa falta da oraindik: jarduketara definituak, gauzatze-egutegia, finantzaketa bermatua, konpromiso zehatzak eta inpaktua jasoko duen proiektu integral bat”. Gaur-gaurkoz, idatzita dagoen proiektu bakarra Lazoarena da. Alvarezek adierazi zuen “Mimendiko estaldura eta ikastolako bihurtzea, idazteko daude oraindik, eta ez dute ez kronogramarik ez plangintza zehatzik, noiz gauzatuko diren eta nola finantzatu diren”.

Andoaingo Udalak, ikasturte honetan, egindakoa defendatu zuen. Esaterako, ikasturtearen hasieran abiarazi zuten partaidetzako prozesua: “Udalak sustatutako sozializazio prozesu zabal baten ondoren, ia 3000

andoaindarrek parte hartu zuen. Andoaingo herritarrek modu argian adierazi zuten N-laren etorkizunari buruz duten jarraera. Emaizta argia izan zen: parte-hartzaileen %93,7 Lazo proiektuaren aurka agertu zen, eta auzia modu orokorrago batean lantzen zuten alternatibak alde egin zuen”. Garai beretsuan Udalean Errespetatu Andoain plataformaren mozioa onartu zela gogorarazi dute. Gauzak horrela, Udal gobernuaren hitzetan, “Udalak bere herritarren aurrean leialtasunez jokatu du, herritarrek adierazitako borondatea defendatuz eta Aldundiari helaraziz, eta harekin elkarrizketa-guneak irekiz. Horregatik, Aldundiari eskatzen diogu Andoaingo herritarrak kontuan har ditzala. Eta, bestetik, aurkez dezala proposamen integral, argi eta gauzagarri bat”.

“ESKATZEN DIOGU ALDUNDIARI HERRITARRAK KONTUAN HAR DITZALA”

Aldundiak lazoaren eta egitasmo osagarrien berri eman du

Bide Azpiegituretako eta Lurralde Estrategiako departamenduaren egitasmoa argitara eman da

Jon Ander Ubeda ANDOAIN

Gipuzkoako Foru Aldundiak argitara eman du bere webgunean N-I eta A-15 errepideak Andoain lotzeko proiektua, 'Bazkardoko lazoa' izenez ezaguna. Hala, Bide Azpiegituretako eta Lu-

rralde Estrategiako departamenduak obrak urtea amaitu baino lehen esleitzea aurreikusten du, 57 milioi euroko aurrekontuarekin, eta ondoren obrei ekitea, 18 hilabeteko eraikuntza epearekin.

Lazo eta hobekuntza proiektu osagarriak

Aldi berean, hobekuntza proiektu osagarrien lizitazioa bultzatuko du departamenduak; besteak beste, Mimendi auzo paretik igarotzen den errepide tartearn estaltzea eta udalerrirako sarbide berriak eraikitzea. Irune Berasaluze foru bozeramaileak nabarmendu zuenez, “lazoak Bazkardoko eguneroko autoilarak konpontzea ahalbidetuko du, eta horrek ingurumen kalitate hobetzea ere ekarriko du”.



Irune Berasaluze, foru bozeramaileak. ALDUNDIA

Andoaingo Rock Jaialdia

Rockzaleen ospakizuna 18. ediziora iritsi da, zehazki, aurreko larunbatean. Eguerdian hasi eta ordu txikiak bitarte hainbat musika talde ezagutzeko aukera izan zen. Izan ere, rock jaialdiak Euskal Herriko eta nazioarteko proposamenak ezagutzeko aukera bikaina ematen du. Zuzenekoak duen magia bereziarekin, gainera. Argazkietan, Barrrik eta Katiuskak taldeak.





AGENDA

HITZORDUAK. Tel.: 943 300 732 / andoain@aiurri.eus



San Juan bezperako sua Urnietan. AIURRI

ANDOAIN, URNIETA San Juan bezperako ospakizuna

Tradizio handiko ekitaldia jaietan: Kanpai-errepika, txalaparta eta suzuria. Ondoren, Danborrada eta euskal dantzak. **22:30, Goikoplaza.**

Udako solstizioa Txanbolin elkartarekin eta Sorginekin. **21:40, Txanbolin. 22:30, Akelarrea. Plazido Muxika plaza. Ekainak 23, asteartea.**




AIURRI

Egunean Behin lehiaketa

Tokikom Ligako bosgarren astean, Aiurri (Beterrri-Buruntza) taldeko partaideen artean, zozketa egin eta irabazlea "Unax" lasartearra izan da. Dagoeneko jaso du Gaztañagako sagardo-botila sorta, Aiurrikoen eskutik. Bitxikeria: "Mariaje" bigarren asteko saridunaren biloba da "Unax".

ZORION-AGURRAK



ANDOAIN
Eki
Zia
Marcos
Zorionak
zure
zazpigarren
urtebetetzean!
Ondo pasa!

ANDOAIN
Elisabet
Gallo
Aizpurua
Hilaren 28an
urteak.
Zorionak
eta urte
askotarako!!!

ANDOAIN
Ane
Garmendia
Albisu
Zorionak
Ane!
Ederki ospatu
famili eta
lagunekin.

Jam Session saioa, Santa Leokadian, ostiralean

Zuzeneko musika eta inprobisazioarako tartea izango da ostiral Urnietan, San Juan plazan, Santa Leokadia ondoan. Bertan parte hartuko dute Hamarretan Makulu musika taldeak eta Sweet Sara & PL Kahuna duoak. Saioa iluntzeko 20:00tan hasiko da. Bi urte atzera, Urnietako Hamarretan Makulu taldeak debuta egin zuen Gazte Festetan.

Bertxin Jubilatuen Elkartaren Egitaraua, jaietan

Ekainak 18, osteguna:
16:00. Tute txapelketa
Ekainak 19, ostirala:
16:00 Toka eta igel txapelketak.
Ekainak 20, larunbata:
12:00 Meza.
14:00 Bazkaria, Oianumen. Bus irteera, 13:30ean, elizaren atzealdeko bus geltokian.
Ekainak 24, asteazkena:
12:30 Hamaiketakoa.



Agenda bateratua:

Udaleko eta herriko ekintzen topagunea.

Andoaingo Udalak "ANDOAIN BAT" kaleratuko du, herrian antolatzen diren jarduerak bilduko dituen **agenda bateratua**. Proiektuak hiru dimentsio izango ditu: aplikazioa, webgunea eta eskuorria.

- Mugikorrerako app-a**
Ekitaldi guztien agenda eta gehiago. **Eskaneatu QR kodea** aplikazioa deskargatzeko.
- Webgunea**
Kontsultatu guztia **andoainbat.eus** webgunean, beti eguneratuta.
- Eskuorria**
Hilabeteko **programa paperean**. Herriko gune hauetan eskuragarri egongo da: Ataria, Ambrosia Olabide, Urigain, Arrate, Bastero Kulturgunea, Liburutegia, Gazte Lokala, Ludoteka eta Allurralde.



Android



iOS





